

Ulermena

Gargolen jatorria



Gargolak Erdi Aroan eraikin garrantzitsuen zabaltzetan, batez ere katedraletan, jartzen zituzten estatua bitxi bezain beldurgarriak dira. Zenbaiten esanetan eraikinak babesteko jartzen zituzten bertan, baina beren zeregin nagusia euri-uraren hustubide izatea zen. Izena frantses zaharreko *gargouille* hitzetik datorkie eta «eztarria» esan nahi du; horixe baitziren gargolak, katedralen eztarri antzekoak. Haien jatorriaren berri ematen duen kondaira ere Frantzian kokatzen da. Jakin nahi al duzu?

Behinola, Sena ibaiaren ondoko leize batean, dragoi

beldurgarri bat bizi omen zen, lepo luze-luzea zuena, La Gargouille izenekoa. Dragoiak oso jenio bizia zeukan: itsasontziak irensten zituen, aurrean aurkitzen zuen oro txikitzen zuen eta ur gehiegi botatzen zuen ahotik; hainbeste ere, non beti uholdeak eragiten baitzebilan.

Dragoiaren umore txarra baretzeko, Rouen

herriko biztanleek gizaki bat eskain tzen zioten urtero, kriminalen bat normalean, baina dragoiak dontzeilak nahiago omen zituen.

Egun batean, apaiz gazte bat heldu zen Rouenera, eta dragoia menderatuko zuela esan zien he rri tarrei; trukean, herrian eliza bat eraikitzeke eskatu zuen. Esan eta egin. Gurutzea erakustearekin batera, dragoia gainditu eta herrira ekarri zuen sokaz loturik. La Gargouille sutan erre zuten, bai na haren aho handia eta lepo luzea udaletxeke teilatuan jarri zituzten, balentriaren orogarri.



- Ordenatu gertakariak zenbaki bidez, kondairaren laburpena osatzeko.



Lasai egoteko, rouendarrek giza sakrifizioak eskaintzen zizkioten dragoiari urtean behin.

La Gargouille herrian erre zuten eta haren burua udaletxeke teilatuan jarri zuten.

La Gargouille izeneko dragoi beldurgarria Sena ibaiaren ondoan bizi zen, Rouenen.

Apaiz gazte batek menderatu zuen dragoia, gurutzearen laguntzaz.

Dragoiak izugarrizko triskantzak eta uholdeak eragiten zituen.

- Irakurri definizioak eta bilatu testuan haiei dagozkien hitzak.

- Eraikin baten estalkia, aldapatsua eta teilaz estalia:
- Urak gainezka egin eta inguruak urpean estaltzea:
- Toki bateko ura husteko hodia edo kanala:
- Emakume gazte, birjina eta xaloa:
- Eraikin baten estalkia, gainean ibiltzeko aukera ematen duena:

Hidrogenotegiak

2020. urtean 6,1 milioi auto garbi egongo dira European

Hidrogenoz hornituko gaituen lehen zerbitzugunea 2007an irekiko dute

Legardan (Nafarroa) kokatuko da eta erregai ekologikoz gain erregai tradizionalak ere izango ditu salgai

Zenbait ikerketak diotenez, mende-erdi eskas falta da petrolioaren aroa amai tzeko. Oraingoz, Nafarroa aitzindari izango da arlo horretan, eta 2007. urterako, erregai tradizionalaz gain, biodiesela eta hidrogenoa ere salgai izango dituen lehen hornitegia irekiko dute Legardan. Proiektu horren atzean Acciona Energía enpresa dago eta beste hiri batzuetan ere horrelako hornitegi gehiago irekitzeko asmoa azaldu du dagoeneko. Herrialde gehienetan pilaz eta hidrogenoz dabiltzan

autoak oraindik saltzen ez diren arren, duela gutxiko txosten baten arabera, 2020. urterako horrelako 6,1 milioi auto ibiliko dira Europako errepideetan zehar. Izan ere, Alemanian badaude hidrogenoz dabil tzan autoak eta baita *hidrogenotegiak* ere, Munichen eta Berlinen.



- Klikatu aukera zuzena kasu bakoitzean.

- Mende-erdi barru
- Legardan
- Auto garbiak
- Aurrerantzean

- Bilatu testuan hitz hauen sinonimoak.


- | | |
|--------------|-------------|
| • aurrelari: | • helburu: |
| • azterlan: | • sasoi: |
| • ezarri: | • egitasmo: |

Ligiko zubia

Ligin zubi bat zuten. Baina urak bota eta eraman egiten zuen askotan. Jakintsuek Ligiko zubia erromatarrek egina dela diote. Ez, horixe! Nik badakit, amonari nire hautzaroan entzunda, lamiek egin zutela zubi izugarri hori. Ez uste lamia guztiak gaiztoak direnik! Zintzoak ere badira. Aspaldi Lezarantzu mendiko lamiek Ligin, ibai handian, zubi bat egitea pentsatu zuten. Lan handia, baldin bazen! Baina ba al da lamiek egin ezin dutenik? Gau ilun bat hautatu zuten, ez baitzuten ikuslerik nahi. Isil eta gogoz lanean hasi ziren, argitu baino lehen zubia egiteko asmoz. Zubi.-arkua eraiki zuten, ez bi goierarik batera, guk bezala; goiera batetik bestera, lamiek egiten ohi duten bezala baizik.

Handik ez urrun, bazen okin bat eta beti bezala, gauerdian labea piztu zuen. Oilategitik oilar gazte bat hasi zen kukurrunka eta hegalak astintzen, labeko argitasun huru ikusiz eta egunsentia zea pentsatuz. Lamiak azken harria bere lekuan jartzen hasi zen. Baina oilarraren kukurrukua entzun zutenean, brau! Harria ibaian behera bota eta oihu ozen batekin ilunpean galdu ziren.

Geroztik, ibaiko ura gardena denean, nornahik ikus dezake zulo handi bat, lamiek bete gabe utzi zutena.



- Adierazi esaldi hauek egia ala gezurra diren.

- Ligin zubia lamiek egin zuten.
- Lamiek bi goieratik baterako zubi-arkua eraiki zuten.
- Zubiaren inguruetan ez zegoen ezer.
- Lamiek oilarraren kukurrukua entzutean, zubia bukatu gabe utzita alde egin zuten.

- Bilatu hiztegian testuko hitz hauen sinonimoak.

- goiera

- oihu

- egunsentia

- hautatu

- ozen

- astindu

- Ordenatu zenbaki bidez ondoko ekintzak



Okin batek gauerdian labea piztu zuen.

Zubi-arkua eraiki zuten.

Lezarantzuko lamiek zubi bat egin nahi zuten.

Zubian zulo bat ikus daiteke.